

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2012ko urtarrilaren 4a. IX. urtea. 2.336. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eskualdeko lau gaztagilek eskuratu dute World Cheese Awards-eko saria

Berastegiko Arantza Garaiburuk, Oresako Oihan Txiki kooperatibak, eta Tolosako Carlos Belokik eta Pedro Zuzuarregik jaso dute aipamena munduko txapelketan

Oihan Txiki kooperatibako Josune Malkorra ordezkariarentzat ezustekoa izan da hiru domina jasotzea; urrezkoa ardi esnez eginiko gazta ketuak eskuratu du **5**



Josune Malkorra, Oihan Txiki kooperatiban egiten dituen gaztekin. L. TERRADILLOS

Web orrietan euskara hedatzen lagunduko du Tolosako Udalak

Euskarazko webguneen arduradunek martxoak 15 arte egin dezakete diru laguntza eskaerak **2**

Iban Asenjo
Kirikiñoko begiralea

«25. urteurrena tolosarrekin ospatu nahi dugu»

Tolosako aisialdi taldeak jaia antolatu du gaurko **2**

Nafarroako Gobernuaren murrizketen kontra dago Leitzako alkatea

Udalen diru sarrerak jaitsi izana salatu du **6**

63 langabetu kontratatzeke diru laguntza, Lanbidetik

Tolosako udal gobernuak Enplegu Plana jarri du martxan, «langabeziari aurre egiteko» **3**

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean liburua erosteko aukera duzue:

• **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarran: Lurdes liburudendan.


Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan, Babel liburudendan eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.



Euskarazko webguneak diruz lagunduko ditu udalak

Datorren martxoaren 15era bitarte aurkeztu ahal izango dira diru laguntza lortzeko eskaerak

Itzea Urkizu

Tolosako Udalaren diru laguntza jaso ahal izango dute aurrerantzean, webguneetan edukiak euskaraz eskaintzen dituzten erakundeek, eduki horiek «betiere publiko zabalari interesgarri gertatzen zaizkion neurrian».

Helburu nagusia euskara informazio teknologien munduan hedatzea da, eta «euskararentzat hain garrantzitsua den erabilera

esparru honetan» bertako hizkuntzak leku oparoa izatea nahi du udalak; erakunde eskatzaileei gastuak murrizten saiatuko dira bide honetan.

Tolosako erakundeei begira

Diru laguntzan eskatzeko zenbait baldintza bete beharko dituzte erakundeek; egoitza sozial eta fiskala Tolosan izatea da nabarmena. Era berean, erakundeen web orriak eduki oso-oso euskaraz eskaini beharko du, eta hau izango da webgunean sartzerakoan lehenetsitako hizkuntza, itzulpenen aurretik.

Bide beretik, berebiziko garrantzia izango du hizkuntzaren zuzentasunak eta kalitateak, eta baita web ataria modu egokian

elikatzeak ere: bisita kopurua, erabilgarritasuna eta eguneratzea kontuan izango dituzte. Gainera, eskaera egiterako webgunea egin beharko dute erakundeek.

Eskaera inprimakia beteta heldarazi beharko dute erakunde eskatzaileek Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordera, gastuen jatorrizko ziurtagiri edo kopia konpultsatuekin, eta diruz lagundutako jardueren agiriarekin batera, martxoaren 15a baino lehen.

Erabakitzeko irizpideak

Besteak beste, lau ildori jarraituko die balorazio batzordeak, diru laguntzen inguruko erabakia hartzerakoan. Gunearen edu-

kiak etengabe berritzeko jarritako bitartekoak garrantzitsuak izango dira, forma, diseinua eta erabilerraztasunarekin batera; ezintasunak dituztenentzat webgune aproposa izatea ere kontuan hartuko dute. Azkenik, software askea erabiltzea ere irizpideetako bat izango da.

Euskarazko webguneentzako diru laguntzen inguruko erabakia balorazio batzordeak hartuko du; udaleko informatika zerbitzuko teknikariak, udaleko IKHA zerbitzuko teknikariak eta udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko kideek osatuko dute batzordea. Eurek erabakitakoa Gobernu Batzarrek hobetsi beharko du, ebazpena behin betikoa izan dadin.

2.000 euroko laguntzak

Tolosako Udalak 2.000 euro bideratuko ditu euskarazko webguneak dituzten erakundeak diruz laguntzeko.

Eskatzaile bakoitzak, webgunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren %50a jasoko du; diru laguntzak ez du sekula 400 euroko kopurua gaindituko, hala ere. Era berean, web orriagatik jasotako diru kopuruak, erakundeak jasotako bestelako diru laguntzekin batera, ezin izango du inola ere, egindako inbertsioa gainditu.

Tolosako Udalak martxoaren 25etik hasita, bi hilabeteko epea hartuko du eskaerak aztertu eta ebazpena erabakitzeke. Ebazpenik ematen ez badute, eskatutakoa ukatu dutelako izango da.

Iban Asenjo

Kirikiño aisialdi taldeko begiralea

25. urteurrena beteko du aurtan Kirikiño aisialdi taldeak. Gaur bertan hasiko dituzte ospakizunak, gatzetxoentzako festarekin

«25 urte hauetan helburu berak izan ditu aisialdi taldeak»

Itzea Urkizu

Alkor eta Txantxangorri taldeak elkartu zirenean sortu zen Kirikiño aisialdi taldea, 2003-2004 ikasturtean. 25. urteurrena ospatuko dute aurtan, eta gaur bertan hasiko dira festa batekin. Iban Asenjo (Tolosa, 1990) begiralea taldeko arduradunetako bat da. **Gaur gatzetxoentzako festa antolatatu duzue. Zeraurkituko dute bertaratzen direnek?**

Asmoa gabonetako parke moduko bat egitea da. Puzgarriak izango dira, eta horrez gain, Kirikiño-ko begiraleok ere bertan egongo gara eta gatzetxoekin hainbat tailer eta jolas egingo ditugu. 16:00etatik 20:00etara, 10 urtetik beherakoentzat izango da.

Urtean zehar beste jarduerarik antolatuko al duzue urteurrena ospatzeko?

Bai, gure helburua hainbat ospakizun antolatzeko da. Lehenengoa



HITZA

gaurkoa izango da, baina gerora ere egin nahi ditugu gauzak, bai talde barruan, eta baita taldekide izandako guztiei eskainitako jarduerekin ere. Gure 25. urteurrena tolosarrekin ospatu nahi dugu.

Zugaztea zaren arren, aisialdi taldea sortu zenez geroztik, zer aldatu da?

Aisialdi taldea sortu zenean, ni oraindik ez nintzen jaio. Hala ere, badakit hasiera-hasieran bost begirale bakarrik zirela, eta gazte talde txiki bat. Geroztik taldeak gora egin du, eta gaur egun 50 begirale inguru aritzen gara, 400 bat gatzetxoekin. Hala ere, 25 urte hauetan guztietan gogo berarekin aritu izan da taldea: gazteak baloreetan heziz, eta ondo pasatzeko aukera emanez.

Kirikiño helburu hauek bideratzeko zein jarduera antolatzen ditu urte osoan zehar?

Eskolan bertan biltzen gara larunbatero. Horrez gain, Eguberrietan eta Aste Santuetan ere, gatzetxoekin eskolako oporrak prestatuz, hiruzpalau eguneko kanpaldiak antolatzen ditugu. Udan berriz, jarduera luzeago bat antolatu ohi dugu: hamar edo hamabost eguneko kanpaldia egiten dugu, egutegiaren arabera betiere. Kanpaldiez gain, mendi irteera batzuk antolatzen ditugu; Inauterietako konpartsa ere urterotzatzen da, eta abenduaren 24an nahiz Santa Ageda bezperan talde txoasatzen dugukantuan ateratzeko, ohiturak ez galtzeko.

Zenbat urterekin hasten dira Hiruki-deko ikasleak, Kirikiño-ko jardueretan parte hartzen?

Lehen Hezkuntzako 5. mailan hasten dira, hamaika urterekin. Sei urtez mantentzen dugu aisial-

di taldearen eskaintza, eta DBH 4. mailan amaitzen da, hamasei urterekin. Horren ondoren, Kirikiño-ko kideek aukera izaten dute helduentzako beste talde batean sartzeko; taldeak Sendotzen du izena, eta sendotza prestatzeko jarduerak burutzen dituzte, beste gauza batzuen artean. Talde hauetatik guztietatik pasa ondoren ere, gure artean elkartzen jarraitzen dugu, beti printzipio berdinekin.

Inauterietarako prestatzen hasiko zineten jada, ezta?

Oraindik ez gara hasi, baina oportunitate itzuli eta lehen larunbatean hasiko gara, dantzaren lehen pausoak ikasten. Ea zerbait polita ateratzen den, 25. urteurrena izanda zerbait berezia egin nahi baitugu Inauteri hauetan. **tolosa@hitza.info**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

63 langabetu kontratatzeko laguntza emango du Lanbidek

Udal gobernua Enplegu Plana martxan jartzea erabaki du; programaren kostua ia 900.000 euroko da

Imanol Garcia

Azken bi gobernu batzarretan hainbat gai aztertu eta onartu ditu udal gobernuak. Nabarmenak bat udalak Enplegu Plana martxan jartzea izan da, 91 lanpostuko sortarekin, «udalerri honetako langabeziari aurre egiteko». Kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten edota diru sarerak bermatzeko errenta jasotzen duten langabeak kontratatzea bultzatzeko laguntzak ematen ditu Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak.

Lanbidera egindako eskaeraren ondoren, zerbitzu horrek 63 langabeteren kontratazioarako diru laguntza onartu du. Kontratazio horiek udalak berak zuzenean egin ahal izango ditu edo udalarekin zerbitzuren bat kontratatuta daukan edozein entitatek. Programaren kostu osoa ia 900.000 eurokoa da eta diru laguntzak kostuaren %100 hartuko du. Tolosako Udalak, Goroldik, Kirolzer enpresak, Tolosaldeko Mankomunitateak, Tolosa&Co entitateak eta entitate adituek garatuko dituzte proiektuak.

Beste bi gai garbiketa enpresekin egindako kontratuen luzapena izan da. Bi kasuetan, eta egoera ekonomikoa kontutan izanik, zerbitzuaren egokitze batzuk egin dira, bai enpresen eta baita udalaren adostasunarekin ere. Kale garbiketari dagokionez, Serbitzu Elkartea SL enpresak beste urte betez jarraituko du, 2012 bukaera arte, eta ia 1,3 milioi euro ordainduko zaizkio. Eraikin publikoen garbiketari dagokionez, Eulen, SA enpresari kontratua luzatu zaio beste urtebetez, 2012 bukaera arte, eta 435.000 euro ordainduko zaizkio.

Beste gaitako bat, Leidor antzokiko proiektore digitala jarriko duen enpresa aukeratzea izan da.

ZUZENKETA: Atzoko alean, ALEGIKO San Silbestre krosean, bigarren emakumea Agurtzane Garmendia izan zela irakurri ahal zen, baina hirugarrena izan zen bera. Bigarren emakumea Mari Jose Albeniz izan zen.

Udal gobernua Tecnica Cinematografica Loza, SL enpresari esleitu dio proiektzio digitaleko ekipoa hornitzeko eta instalatzeko kontratua, 72.827,83 euroko aurrekontuarekin. Enpresa horren proposamenaren prezioa ez zen txikiena, baina udal gobernua beste arrazoi batzuk ere izan ditu erabakia hartzerakoan: «Batetik, mantentze zerbitzua bi urtez doan egingo duelako eta, bestetik, instalatutako ekipoen softwarea epearen barruan doan eguneratzeko bermea eman duelako».

Beste puntuetako batean, mendekotasun prebentzioarako programa 2012. urtean finantziazteko aurrekontua onartzea izan da. Horretarako bideratutako kopurua ia 5.700 eurokoa da. Udal gobernuak azaldu duenez, «balorazio oso ona» izan du programak eta horren harira hartu da beste urte betez luzatzea.

Saharari laguntza

Saharako Bir Lehlua herriko alkateak aurkeztu duen proiektua izan da udal gobernuak tratatu zuen beste gaitako bat. Bir Lehlua herria eta Tolosa senidetuta daude. Bertako alkateak, beste gai batzuen artean, senidetzeari ofizialtasuna ematea proposatu zuen, eta Tolosako Udalaren eta udalerri horren artean lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea, udalerri horretan hobekuntza proiektu bat finantzatzeko, hain justu, herriko ur depositu berriak jartzea.

Eskaera horren aurrean, udal gobernuak ur deposituak jartzeko diru laguntzak ematea erabaki du: 2011 urteko aurrekontutik 18.000 euro eta beste hainbeste 2012koetatik. Bestalde, senidetzearen ofizialtasuna eta lankidetzaz kontratu baten sinadura 2013 urtera atzeratzea erabaki du. «Horiek udalerriaren sentsibilizazio jardueren programa bat egitea eskatzen dute, horri dagokion gastuarekin, eta hori ez da egokia ikusten orain daukagun egoera ekonomikoa dela eta», zehaztu du udal gobernuak.

Beste puntuetako batean, hotsari aurre egiteko larrialdiko bizilekua etxerik gabekoentzat programa martxan jartzea onartu du udal gobernuak. Iaz ere onartu zen programa hori. Programa martxan jarriko da baldin eta gaueko tenperatura 5º zentigradotik beherakoa izango dela aurreikusten bada eta Abegi beteta badago.



Mota askotako jaiotzak aurkezten dituzte parte hartzaileek. HITZA

Biharko Errege Magoen desfilean erakutsiko dituzte jaiotzak

Jaiotza lehiaketan oraindik izena eman ez dutenek, 18:30ak baino lehen Plaza Zaharrean egon behar dute

I. Garcia

Errege Magoen desfilearekin batera, jaiotza lehiaketa antolatzen dute San Bernardo, Ttenteak, Kazkabarra eta Kirikiño aisialdi taldeek. Izen ematea irekita egon da kultur etxean abenduaren 30a arte, baina oraindik aukera bada go lehiaketan parte hartzeko. Horretarako, bihar 18:30ak baino lehen Plaza Zaharrean egon behar

dute eta parte hartu nahi dutela adierazi antolatzaileei. Dagoeneko izena eman dutenek ere, ordu horretarako egon behar dute leku berean.

Izan ere, lehiaketan parte hartzen duten jaiotza guztiek, derri gorrezkoa dute Errege Magoen desfilean izatea. Horrez gain, desfilea amaitu ondoren eta sari banaketa burutu arte, jaiotzak Zerkausion erakutsiko dituzte parte hartzaileek.

Lehiaketako parte hartzaile guztientzat izango dira opariak eta horrez gain, hiru sari banatuko dituzte. Lehenengo saria eskuratzeko dutenek, 40 euroko erosketaxartela jasoko du taldeko partaide bakoitzak. Bigarreno

sariari dagokionez, 30 euroko erosketaxartela eskuratuko du taldeko partaide bakoitzak, eta hirugarreno saria jasotzen dutenek, berriz, taldeko partaide bakoitzarentzat 20 euroko erosketaxartela izango da. Txartel horiek Tolosa&Co dendarien elkartearen dendetan erosteko erabili ahalko dira.

Sari banaketa Zerkausion burutuko da. Errege Magoak bertan dauden bitartean. Epaimahaikideek jaiotza egiteko eskulanaren trebetasuna, orijinaltasuna, abilezia... kontutan izango dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, lehiaketan parte hartzeak bertako oinarrietan zehaztuta dagoena onartzea suposatzen du.

Irudia



EDOSKITZE GARAIKO EMOZIOAK, HIZPIDE

Esna-bidean talde erakusketaren beste ekitaldi bat egin zen atzokoan Aranburu jauregian. Nerea Mendizabal psikopedagogoak Amaren egoera emozionala edoskitze garaian hitzaldia eman zuen. Gaur ere beste ekitaldi bat izango da. Astero

edoskitze saioak egiten ari dira erakusketaren barruan, eta gaurkoan berezia izango da. Izan ere, Tolosan edoskitze lekuak aukeratzeko baliatuko da. 18:00etan hasiko da saioa. Bestalde, erakusketak 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke. I. GARCIA

Luzatze eta malgutasun ikastaroa, Asvinenean

Hilaren 21ean izango da eta egun osoko saioa egingo dute; Adin guztietako pertsoneri zuzendua dago

Eneritz Maiz Aduna

Asvinenea arte eszenikoen eskolak luzatze eta malgutasun ikastaroa antolatu du. Ane Miren izango da irakaslea, eta hilaren 21ean, larunbatean izango da.

Egun osoko saioa izango da, 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren kostua 50 euro izango da, eta Asvineneako bazkide izanez gero, 45 euro ordaindu beharko da. Adin eta maila guztietako pertsoneri zuzendutako ikastaroa prestatu dute. Norberak bere gorputza ezagutuko du, eta bakoitzak



Pertsona bakoitzak bere gaitasunaren arabera egingo ditu ariketak. HITZA

bere gaitasunaren arabera egingo ditu ariketak, Asvineneako arduradunek azaldukoaren arabera. Ikastaroa egiteko asvineneaeskola@gmail.com hel-

bidera idatzi behar da, edota 665 738 081 telefono zenbakira deitu.

Antolatzaileek diotenez, hilean behin antolatu nahi dute.

Leitzako Udalak murrizketen aurkako manifestua sinatu du

Nafarroako Gobernuarekiko desadostasuna azaldu du alkateak herrialdeko hainbat udalekin batera

E. Maiz Leitzza

Leitzako Udalak, Nafarroako beste hainbat udalekin batera, murrizketen aurkako manifestu bat sinatu du. Bertan, batez ere, Nafarroako Gobernua udalei zuzendu beharreko diru sarreteran egiten ari den murrizketak salatzen dituzte.

Leitzako alkatearekin batera, Atarrabia, Agoitz, Altsasu, Baztan, Bertizarana, Basaburua, Berriozar, Goizueta, Gares, Monreal, Lizoain-Arriasgoiti eta Olazagutiako alkateak sinatu dute, eta «erabateko desadostasuna» agertu dute.

Nafarroako Gobernuak egin dituen murrizketekin, «udalak dira

arloan guztietan galtzen ateratzen direnak», azpimarratu dute hautetsiek.

Alkate guztiak, 2011ko laugarren hiruhilekoan egin dituzten murrizketen aurrean arduratuta agertu dira, eta 2012. urteko aurrekontuei dagokionean, «kezka handia» agertu dute.

Bost puntu

Bost puntutan bildu dute beraien desadostasuna, eta kritika egin dute. «Abiadura Handiko Trenaren edo Los Arcos herriko Zirkuituaren obrek ez dute maila bereko murrizketarik izan», salatzen dute.

Era berean, finantzatzeko legeriaren aldaketak bultzatzeko aukerak aztertuko dituzte.

Bukatzeke, sinatu berri duten manifestu hau, beste udaletxe guztietara bidaliko dutela azaldu dute; honela, nahi duten kargu politiko guztiek bat egiteko aukera izan dezaten.

● leitzaldea@hitza.info

→ Laburrak

‘Miru, aintzirako sorgina’ ipuina, Torrea tabernan

LEITZA » Gaur, hilak 4, Leitzako Torrea tabernan ipuin kontalaria izango da etxeko gaztetxoentzat. 17:00etan hasiko da saioa, eta *Miru, aintzirako sorgina* izeneko ipuina kontatuko dute. Antolatzaileen arabera, istorioa 2 eta 10 urteko haurrei zuzendua dago, eta puntual hasiko denez garaiz gerturatzeke deia luzatu dute.

Gaur, Abaltzisketa eta Ikaztegieta nor baino nor

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta eta Abaltzisketako neska-mutiek lagunarteko futbol partida jokatuko dute, gaur. Abaltzisketako Txalburu taldeko gazteak ariko dira Ikaztegieta jokalarien aurka. Partida Ikaztegieta frontoian jokatuko dute, eta 16:30etik aurrera ikusi ahal izango da. Partida ikustera gerturatzeke gonbita luzatu dute antolatzaileek, eta baita giro onean bi taldeak animatzeko ere.

gabonetan, oparitu
hitzaren jertsea

Helduentzako Jertsea:
lehen **29,5 €**
orain, **eskaintza berezia**

25 €

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modeloak
Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

• TELEFONOK: 902-82 02 01
• POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zator HITZAren bulegora

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info
bertako egunkaria

902-82 02 01
(Asteegunetan 08:30-20:30 /
Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behe, atzea • 20400 Tolosa

**egin zaitez
harpidedun!**

World Cheese Awards mundu mailako gazta txapelketarik entzutetsuenetakoa Idiazabal izendapena duen gaztak arrakasta handia izan du; eskualdeko lau gaztagileren kasuan, sei domina eskuratu dituzte.

Gure gazten kalitatea saritua

Iñigo Terradillos

Birminghamek batu berri ditu munduko gaztagile onenak. World Cheese Awards mundu mailako txapelketarik entzutetsuenetakoa egin dute bertan, eta sarituen artean euskaldun asko izan dira, baita eskualdekoak ere. Hain zuzen ere, Berastegiko Arantza Garaiburu, Orexako Oihan Txiki kooperatiba, eta Tolosako Carlos Beloki eta Pedro Zuzuarregik eskuratu dituzte sariak. Lau gaztagileek, orotara, sei domina irabazi dituzte Inglaterran eginiko txapelketan: urrez-

ko bat, zilarrezko hiru eta brontzezko bi.

Iragan azaroaren 23an egin zuten sariketa, eta egun horretan bertan eman ziren jakitera irabazleen izenak. Gaztagileek, baina, abenduaren 2an Idiazabal Gazta Jatorrizko Deitura erakundean Iruñean egin zuen ekitaldian jaso zituzten sariak. Idiazabal gazta ekoizten duten Hego Euskal Herriko 30 artzainek 46 sari eskuratu zituzten guztira.

World Cheese Txapelketan mundu osoko 30 herrialdeko 2.700 gazta baino gehiago aurkeztu ziren, eta 2011ko gaztarik onena aukeratzeko, berriz, 200 dasta-

tzaile baino gehiagok osaturiko epaimahaia. Honek guztiak gurean eginiko gaztak nazioartean duen harrera ona agerian uzten du.

Urtero sariak

Ez da lehendabiziko aldia eskualdeko gaztagileek gisa honetako sariak eskuratzen dituztena. Tolosako Martin-Txiki baserriko Pedro Zuzuarregi, esaterako, azken bost urteetan aurkeztu da lehiaketara, eta beti itzuli da sariekin. «Lehendabiziko urtean gazta batekin aurkeztu ginen eta brontzea lortu genuen; bigarren urtean; hiru brontze eta zilar bat, hi-

rugarrenean, urte bat eta zilar bat; laugarrenean urte bat eta brontze bat; eta azkenekoan zilarrezkoa; oso pozik gaude, beti saritzen dutelako gure gazta». 1999. urtean hasi ziren gazta egiten, urte mordoak, beraz, eta horrelako sariak aurrera egiten laguntzen dutela dio.

Berastegiko Larte baserriko Arantza Garaiburu azken lau urteetan aurkeztu da lehiaketara, eta lauretan irabazi ditu dominak. Lehenengo urtean brontze bat jaso zuen, bigarren urte bat, zilarrezko bat eta brontzezko bat, hirugarrenean super urte bat eta brontzezko bat, eta azken txapelketan brontzezko domina bat.

Bere kasuan, meritua handiagoa dela ere esan daiteke agian, mundu honetan nahiko «berria» baita: «Bost urte daramatzagu gaztak egiten, beraz, berriak gara, eta sari hauek ongi etorriak dira, indarra ematen digutelako, eta ezaugarriak egiten gaituztelako nola baita».

Orexako Oihan Txiki kooperatiba izan da eskualdeko sarituen, bost dominarekin: urrezko bat, zilarrezko bat eta brontzezko bat. «Oso pozik» hartu dute bertan ere saria. «Zure lana ondo egiten ari zarela esango balizute bezala da, eta oso gustura hartzen

Josune Malkorra • Orexako Oihan Txiki kooperatibako ordezkaria

«Zure lana ondo egiten ari zarenaren seinale modukoa dira sariak»

I. Terradillos Oresa

Urte asko dira herrian kooperatiba sortu zutenetik, 89an hasi baitziren baserriko produktuak ekoizten. Tartean, gazta. Eta ez nolanahikoa, gainera, munduko gazta onenen artean beraia sartzea lortu baitute. Hala uste dute, behintzat World Cheese Awards txapelketako epaimahaia osatzen duten 200 dastatzailerik. Guztira, hiru domina jaso dituzte: urrezko bat, zilarrezko bat eta brontzezko bat. Sari hauek lanean jarraitzeko animatu egiten dutela dio Josune Malkorra kooperatibako langileak.

Munduko gazta txapelketa entzutetsuenetakoa hiru domina irabazi dituzue. Pozik egoteko modukoa izango da, ezta?

Bai. Oso gustura gaude. Horrelako sariak lanean jarraitzeko indarra eta animoa ematen dizute. Lana ondo egiten ari zarenaren seinale modukoa dira, gainera.

Espero al zenuten hiru domina eskuratzeko?

Sariren bat jasotzea agian espero genuen, baina ez hainbeste. Ezustekoa izan da.

World Cheese Awards izeneko txapelketan modalitate edo sail ugari izaten dira. Zuen kasuan, zein sailletan aurkeztu dituzue zuen gaztak?

Gu bost gaztekin joan ginen, beraz, bost gaztetatik hiru izan dira sarituak. Ardi esnez eginiko gazta gogorra, ardi esnez eginiko gazta ketua, egunean bi tona baino gutxiago ekoizten den gazta, izendapen baten barruan dagoena eta



IT

Idiazabal gazta izendapena duena. Horiek izan dira gu aurkeztu garen modalitateak. Urrea ardi esnez eginiko gazta keetuekin jaso dugu, zilarra ardi esnez eginiko gazta gogorrarekin, eta brontzea Idiazabal izendapenekoarekin.

Aurreko urteetan ere eskuratu izan duzue saririk.

Bai. Duela hiru urte aurkeztu ginen lehiaketara estreinakoz. Orduan brontzezko domina bat lortu genuen. 2010ean, berriz, urrezko domina bat lortu genuen, eta azken lehiaketan, hau da, 2011. urtekoan, hiru domina.

Nolatan hasi zineten txapelketa honetara aurkeztu?

Gure gaztak Idiazabal Gazta Jatorrizko Deituraren barruan daude. Jatorrizko Deitura erakundeak berak proposatu zigan lehiaketan parte hartzea, aukerak izan genitzakeelako, eta guretzat onuragarria izan zitekeelako.

Zuek ez zarete berriak mundu honetan. Zenbat urte daramatzazue gaztak egiten?

1989. urtean sortu genuen kooperatiba Oresan. Herrian nekazari-tzaren gainbehera zetorrela nabari zen, eta arazo horri irtenbidea eman nahi zitzaion. Hala, ikerketa sozioekonomiko bat egin zen, eta azkenean baserriko produktuen kooperatiba hau aterazena aurrera.

Eta, ordutik 20 urte baino gehiago igaro dira, beraz, ongi joan dela pentsa daiteke.

Gure gorabeherekin, mantentzen garela esan daiteke.

Zenbat langile egiten duzue lan bertan?

Hiru langile aritzen gara, eta lanaldi erdian dagoen beste bat ere bai.

Zuenean ere nabari al da krisirik?

Bai, nabari da. 2008. urtetik produktuak saltzea gehiago kostatzen dela nabari dugu.

Atzerrian alako arrakasta duela ikusirik, asko saltzen al da gure mugetik?

Atzerrian ere saltzen da gazta, Ameriketako Estatu Batuetan, Australian, Japonian... baina, oso gutxinaka doan merkatua dela esan daiteke.

• tolosaldea@hitza.info



KIRIBIL
ILEAPAINDEGIA

KIRIBIL ILEAPAINDEGIA

ORDUTEGI ALDAKETA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9:00etatik 18:00tara

LARUNBATETAN

8:00etatik 13:00tara

urte berrri on!

Uzturre 3, Ibarra - 943 67 22 82 - kiribil@hotmail.es

‘Kontatu nirekin’ ekimena denda eta tabernetara zabaldu dute

Egin Dezagun Bidea herri mugimenduak kanpaina eskualde guztira zabaltzeko modua eman du

Asier Imaz

Egin Dezagun Bidea ekimenak azaldu duenez, eskualdeko hainbat merkatarik bat egin dute *Kontatu nirekin* kanpainarekin. Honen arabera, urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestazioari atxikimendua agertu diote. Mobilizazio nazionalen euskal preso eta iheslarien egoera konpontzea eskatuko dute, eta bereziki espetxe politikaren aldaketa.

Eskualde guztira zabaldu nahi du *Kontatu nirekin* ekimena Egin Dezagun Bideak. Merkatarien kasuan, atxikimendua azaltzen dutenek, ekimenaren leloa jartzen duen kartelajasetzen dute, denda eta tabernetan zintzilikatzeko. Sustatzaileek azaldu dutenez, edonork eman dezake urrats hori, eta horretarako helbide elektronikoa bat zabaldu dute: *tolosaldeanedb@gmail.com*. Kar-

teltxeoa eskuratzeko bertara idaztea nahikoa da.

Altzon, elkarretaratzea

Urtezahar gauean euskal preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egin zuten Altzon. Bertan, 40 lagun elkartziren. Euskal preso- en eskubideak aldarrikatu zituzten elkarretaratzean, Euskal Herriratzeara eskatuz. Bilboko manifestazioarekin ere bat egin zuten altzotarrek.



Villabonako Rainbow tabernako jabea 'Nirekin kontatu' ekimenarekin bat egiten. HITZA



Villabonako Basajaun dendak ere atxikimendua eman du. HITZA



Altzon, urteko azken egunean egin zuten elkarretaratzea. HITZA

Irudia › Amasa-Villabona



URTE BERRIA LOATZON HASI DUTE

Eskualdeko hainbat mendi taldek urte hasiera euren gune maitatuenean hasi ohi dute, hau da, mendian. Amasa-Villabonako Aizkardi Mendi Taldekoek, 2012. urtea Loatzon hastea erabaki zuten, eta baita horrela egin ere. Tolosa, Irura eta

Amasa-Villabonako mugak soinean dituen mendian, 30 lagun inguru elkartziren igandean. Goizean galdutako indarrak berreskuratzeko zerbait jan ondoren, Loatzotik mezu bat igorri zuten:

«Urte berri on!» . HITZA

Jaioberri eta gurasoek gune berria izango dute

Sabel dantza ikastaroa eta bertso tailerra antolatu dituzte; zabalik dago izena emateko aukera

A. Imaz Zizurkil

Urtarrilari dagokion Zizurkilgo aisialdirako gida aurkeztu du udalak. Kultur ekitaldiekin batera, jaioberriak eta gurasoak elkartzeko gunearen irekiera, eta izen-abizenak euskal grafiara aldatzeko aukerak egongo dira Zizurkilen.

Kultura sabel dantzaren erritmoan etorriko da herrira, hilaren 23an hasiko den ikastaroan. Atxulondo kultur etxean, astelehenean, 19:00etatik 20:30era elkartzeko dira, martxoaren 26a arte. Guztira bederatzi klase izango dira, eta matrikula 50 eurokoa

izango da. Zizurkil Goiko Zentroan, bestalde, Unai Mendizabalekin Bertso Tailerra antolatu dute. Urtarriletik ekainera izango da, eta 12 urtetik gorako gaztetxoek zuzenduta egongo da. Eguna eta ordua izena ematen dutenen arabera erabakiko da. Horretarako, Aurrera plazako udal bulegoetara joan behar da. KZ Guncari dagokionez, tutoritza hilaren 12an eta 26an izango da, 16:00etatik 20:00etara.

Izenak euskal grafiara

Zizurkilgo Udalak azaldu duenez, izen abizenak euskal grafiara aldatzeaz gain, haurra euskaraz errigistratzeko aukera dago Zizurkilen. Informazioa udal bulegoetan jarri dute.

Haur eta gurasoekin jarraituz, Atxulondo kultur etxean jaioberri eta gurasoak elkartzeko gunea zabalduko dute hilaren 31tik aurrera.



Gutunak

Publizitate sexistari kale!

Beti gazte, eder eta aberats mantentzen diren Barbie eta Ken bikote famatua; aingerutarra, erabat arrosa eta sentikorra den Kitty katua; gerra, suntsiketa, menderakuntza eta indarra irudikatzen dituzten hamaika bideojoko; mundua salbatu eta askatasuna konkistatzea helburu duten Axe gizonak; gizonen desioa eta betirako maitasuna irudikatzen duten lurrin anitzak; ama, emazte on eta familiaren batasuna bermatzen duen emakume irudia sustatzen duten turroi eta garbitzeko produktuen iragarkiak, eta abar. Urte guztian zehar, baina bereziki Gabonetan ikusi behar izaten ditugun iragarki batzuen adibideak besterik ez dira hauek.

Aurten berriz ere, telebistan, aldizkarietan, hedabideetan eta



interneten, oro har, agertzen den publizitatea sexista dela salatu behar dugu. Urteak aurrrera joan ahala, ezin esan dezaieku publizitatearen edukietan eta erabiltzen dituzten moldeetan aldaketak eman direnik. Publizitatea azken batean, jendarte sexista beraren isla da, baina era berean, komunikabideek duten funtzio sozializatzailea ikusita jendarteko egitura patriarkalak birproduzitzen dituzte. Egungo publizitateak, sexuaren arabera rol eta funtzioen

banaketa iraunarazten eta indartzen du. Emakume eta gizon izateko eredu sexista hegemonikoak bultzatzen dituzte, erabiltzen diren hitz joko, irudi eta mitoen erreferentzien bidez. Sexuen arteko ezberdintasunak indartzen dituzte, bereizkeriak areagotuz.

Honela, emakumeok etxe barruko lan eta zaintza lanekin lotuta agertzen gara askotan. Etxerako produktu, jaki eta rol sozialei erreferentzia egiten dioten publizitate gehienetan

emakumeoi jendartean osoki egokitu zaigun funtzioarekin lotuta agertzen gara. Baina ez da publizitateak egokitzen digun rol bakarra. Gizonarentzako desio objektu izaten jarraitzen dugu edozein motatako publizitatean eta gure amets nagusia gizon batekin lotuta agertzen da; honen adibide argia lurrinen iragarkiak dira. Gure bizitzako helburua, gizon baten maitasuna lortzea dela irudikatzen dute eta horretarako edertasun eredu zehatz bat bultzatzen da, gaztetasuna eta argal egotearekin erabat lotuta.

Aldiz, gizonak, munduko heroiak izango balira bezala agertzen dira. Haien ametsa unibertsoaren konkista da, eta haiek dira bere bizitzaren jaun eta jabe, ez daude inoren mesedera. Askatasunaren ideiarekin oso lotuta daude gizonak publizitatean. Haien funtzio nagusia hori izanik etxe barruko eta zaintza

lanekin ez dute loturarik. Honen bestez, berdintasun faltsuaren adibide oso argia da publizitate sexista. «Berdinak» garenaren ideia zabaltzen saiatzen dira, iragartzen duten etorkizuna erabat sexista eta botere harremanetan oinarrituta dagoen bitartean. Publizitateak, sexu-kulturaklase arteko bereizkeriak iraunaraziz eta indartuz, errealitatea, bakarra eta unibertsala (mendebaldarra, diruduna, klase erdi-altukoa, botereduna, heterosexuala, edertasun irudi estereotipatua, aingerua, eta abar) bailitzan irudikatzen du.

Bide batez, publizitate sexistaren aurrean dagoen arduragabekeria salatu nahi genuke, eta horregatik instituzio publikoei, diskriminatzailerik eta sexistak diren iragarkiak, hala nola, jendarte justu eta parekide bati kale egiten diotenak, aztertzea eta mugatzea eskatzen diegu.

■ **Leitzaldeko Bilgune Feminista.**



Hilberriak

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

- Goian bego -

Urretxu ez zen gaurkoan bezain isilik egon sekula
'eskerrik asko' oihukatzea
hain geratzen da ahula
jakin ezazu txistua jotzen
gogoz segiko dugula
doinu orotan entzun dezazun
asko maite zaitugula

URRETUXUKO TXISTULARI TALDEA

URRETUXU, 2012ko urtarilaren 4a

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

- Goian bego -

Iratzarri nahi
eta ezin
gure gogoetan, halere, jakin
nekez zenezakeela lo egin

IRATZARRI DULTZAINARIAK

URRETUXU, 2012ko urtarilaren 4a

JOSE MARI LASA_{ri}

Nola agur esan dakioko
agurtu nahi ez denari?
Nola eskertu emandakoa
eskatzan ez duenari?
Zein doinu eder eta gozoa
txistu eta euskarari...
Ez da posible zu agurtzea
bihotzeko Jose Mari!

Doinua: "Blowing in the wind"



Zintzo Mintzo Kultur Elkartea

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

"Txistu"

Txistua eta danbolinakin
bazterrak dituzu poztu
eta horrela jarrai dezagun
zauden tokian juxtu:
mendi bueltetan, otorduetan
umorez duzu abestu
eskerrik asko bihotz bihotzez
lankidean partetik Txistu

KUTXAKO LANKIDEAK

ORDIZIA, 2012ko urtarilaren 4a

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

Kantuz eraman dezu bizia,
ahazteko hiltzia.
Zuretzat kantuan zegoen
fortuna guztia.
Eta kantuz, kantuz,
zoaz botatuz, zeure hazia.

**Arantxa eta Juanjo, Maribi eta Santi, Eli eta Luis,
Mariaje eta Naparra, Inma eta Xabier**

URRETUXU, 2012ko urtarilaren 4a

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@
hitza.info

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

Bizitza ia guzti-guztia
musika zein euskarari
une on asko eskeini dio
bere herri maiteari
Bai familian baita herrian
beti gure zuzendari
eskerrik asko eta gero arte
bihotzeko Josemari

Etxekoek

URRETUXU, 2012ko urtarilaren 4a

**JOSE MARI LASA ZINKUNEGI**

Herenegun hil zen, 59 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

- Goian bego -

Haren emaztea: Ana Aranburu; semea: Ander eta Eneitz Plazaola; gurasoak: Fermin eta Juana Mari; etxeko izena: Agustina; anai-arrebak: Maria Angeles eta Luken Aseginolaza (†), Izaskun eta Angel Azurmendi; Bixente eta Arantxa Legaristi; Gema eta Luis Albusua; ezkon anai-arrebak: Juana Maria eta Jose Luis Zalakain, Maria Dolores eta Jose Mari Sagastume, Maria Isabel eta Jose Javier Zaldúa (†); ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otit bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN MARTIN DE TOURS parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara, eta ondoren, gorputza eramatera herriko hilerria. Aldez aurretik, mila esker.

Heltbidea: Labeaga 12, Urretxu.

Oharra: Gorpua Zumarragako Santa Isabel beilatokian egongo da.

URRETUXU, 2012ko urtarilaren 4a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Larraul



IPUINEN BIDEZ AMESTEKO AUKERA

Irudian ikusi daitekeen bezala, haurrek ez dute amesteko aukerarik galtzen, eta atzokoan, interes handiarekin jarraitu zituzten Ines Bengoak kontatutako istorioak. Larraulaz gain Tolosan eta Iruran izan ziren ekitaldiak. Tolosan *Olentzero eta Iratxo*en jauntxoak filma ikusteko aukera izan zen, eta Iruran, Gaztelekuan askaria izan zuten, eta ludotekan jolasak izan ziren. Gaurkoan ere izango dira ekitaldiak; Alkizan jateko hainbat masa egiten ikasteko aukera izango da 10:00etatik 12:00etara, eta Iruran mahai tenis txapelketa izango da 17:00etatik 19:00etara, Gaztelekuan, eta xake partidak 17:30ean, plazan. E.MAIZ

Agurrak



Zorionak!

Gaur 50. urteurrena. Ondo pasa familiarekin, eta besarkada bero-bero bat senideen partetik. Laster arte!!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Arribe.** Garmendia, A.
Kale Nagusia.
Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M.
Amaya kalea.
Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako moztorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com